GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.k DATU-GOBERNANTZA, DATU INTEGRAZIO, PROZESUEN AUTOMATIZAZIO ETA KUDEAKETA-KONTROLERAKO DATUEN EGITURA KORPORATIBOA DISEINU ETA EZARPENERAKO ZERBITZUA JUSTIFIKAZIO MEMORIA

Justifikazioa: Garbitania Zero Zabor S.M.k eraldaketa digitaleko prozesu bati ekin nahi dio, erakundearen jarduera operatiboa, informazioaren kudeaketa eta erabaki-hartzea hobetzeko helburuarekin. Horretarako, beharrezkotzat jotzen da erakundearen prozesuen automatizazioa eta arkitektura teknologikoaren diseinua modu integral batean aztertzea eta definitzea.

Xedea: Garbitaniak bere jarduera operatiboa informazioaren kudeaketa eta erabaki-hartzea hobetzeko helburuarekin egingo duen aldaketa digitaleko prozesua zuzendu eta egikaritzea da, Preskripzio Teknikoen Agirian, plegu administratiboetan eta kontratuaren gainerako dokumentazio teknikoan ezarritako baldintzen arabera.

Espediente honen zenbakia 002-2026 da eta kontratatu beharreko zerbitzuari dagokion kode nagusia Europako Batzordeko Kontratuen Hiztegi Komuneko (CPV) nomenklaturan: 72222000-7 – Informazio-sistemen edo teknologia-informazioko estrategiaren plangintza zerbitzuak.

Baliabide nahikorik ez izatea: Garbiketa Zero Zabor S.M.k ezin du baliabide propioekin zerbitzua burutu eta ez du horretarako jakintzarik, baliabide nahikorik ez izatearen txostenean adierazten den bezala.

Sorta banaketarik ez: Kontratua ez da sortetan banatuko egin beharreko zerbitzua osotasunean hartu behar baita.

Lizitazio aurrekontua, lizitazio prezioa eta iraupena: lizitazioaren objektu izango den kontratuaren aurrekontua 60.000€koa, gehi BEZari dagozkion 12.600€, guztira 72.600€. da. Kontratuak hogeita lau hilabeteko iraupena izango du.

Esleipen irizpideak: Metodologia eta lan-plana, arkitektura eta integrazio proposamena, KPI eta kudeaketa-kontrolaren planteamendua, talde teknikoaren esperientzia, ezagutza-transferentzia eta dokumentazioa, hobekuntza teknikoak, genero berdintasuna eta prezioa izango dira.

Kaudimena: Eskatutako kaudimena pleguetan adieraziko da legeak ezartzen duenaren arabera.

Kontratua gauzatzeko baldintza berezien artean pleguetan, hizkuntza betebeharrak, eta genero berdintasuna bermatzea eskatzen da.

Kontratu honen esleipena prozedura ireki arrunta bidez egingo da.

44145740T ENERITZ GURRUTXAGA (R: B75024182)
Digitalki sinatuta norengandik: 44145740T ENERITZ GURRUTXAGA (R: B75024182)
Data: 2026.10.13 14:33:32 +02'00'

Hernanin, 2026ko urriaren 1ean

Eneritz Gurrutxaga Gogortza

Kudeatzailea